| IL AZALPEN PROBA • *Katearen begiak* | | |
|---|---|---|
| Kodea* ............... | Taldea ............... | |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko | | |

| | | |
|---|---|---|
| **E**dukia | | / 2,5 |
| **M**oldea | | / 2,5 |
| **Z**uzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

> Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak…
> Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: ............

Mairuen kontrolpeko lurretaraino iristeko bidea, derrigorrez Aragoi edo Gaztelatik igarotzen zela-eta, bidaia nola egin aztertzen hasi ziren Nafarroako erregearen aholkulariak. Itsasontziz joatea deliberatu zuten, bidaiarik luzeena izan arren, ez baitzen beste modurik Marokora iristeko Gaztela edo Aragoiko lurrak zapaldu gabe. Donostiatik atera eta hamabost egunen buruan Tangerrera heldu zen Nafarroako erregea, berrogeita hamar bat gizoneko zaintzarekin. 1199ko maiatzean egin zuten bidaia, eta itsaso bortitza aurkitu zuten, batez ere sartaldera, Finisterrerako bidean. Alabaina, Nafarroako kostaldeko gizonek arte handia zeukaten itsasoan, eta haren olatu bortitz bakoitzaren amorruaren danbatekoei behar bezalako erantzuna ematen asmatu zuten.

Hamabost egun haietan, baina, asko aldatu zen egoera Marokon. Abu Jakob erregea hil egin zen, eta haren jarraitzaile Mahomad haur bat besterik ez zen artean. Ondorioz, Afrikako iparraldea kontrolpean zuen enperadorea galduta, jauntxo asko matxinatu ziren Miramamolin berriaren boterearen aurka. Ezegonkortasuna erabatekoa zen Antso Azkarra Tremezengo jauregira heldu zenean.

| IL AZALPEN PROBA ● *Katearen begiak* |
|---|
| Kodea* ............... Taldea ............... |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko |

| | | |
|---|---|---|
| **E**dukia | | / 2,5 |
| **M**oldea | | / 2,5 |
| **Z**uzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

> Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak…
> Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: ............

Zoritxarreko istripu haren ondorioz, etxeko giroa asko aldatu zen. Batetik, Txabiren aldaketa zegoen, eta bestetik Federena ere bai, gertaera haren ondorioz ganorabakoa izateari utzi eta txirrindulari bizimodu osasuntsuari bete-betean ematea erabaki baitzuen.

Jauregiko beste biztanleak, Koldo, Dani eta Ibanek, egoera hura iragankorra izango zela pentsatu zuten eta Federen parrandazaletasuna eta Txabiren lidergoa berreskuratu bitartean lemazain berriak eurek izan beharko zutela konturatu ziren.

Inauteri ostean, neguko azken asteak gogorrak izan ziren hiru lagun haientzat. Etxeko giroa guztiz aldatuta zegoen eta, euren ahaleginak gora-behera, lehengo alaitasunaren ordez moteltasuna zen nagusi.

Ezin zen hala iraun. Zerbait egin beharra zegoen giroa lehengora bueltatzeko. Luzaroan pentsatu zuten eta azkenean ideia bat izan zuten: Udaberriko Jaia egingo zuten etxeko lorategian. Euskal Herriko alderdi guztietako edariak ekarriko zituzten –Bizkaiko txakolina, Gipuzkoako sagardoa, Arabar Errioxako ardo beltza, Nafarroako ardo gorria eta Iparraldeko arno zuri gozoa– eta dozenaka estudiante lagun gonbidatuko zituzten.

| IL AZALPEN PROBA • *Katearen begiak* | |
|---|---|
| Kodea* ............... | Taldea ............... |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko | |

| | | |
|---|---|---|
| **E**dukia | | / 2,5 |
| **M**oldea | | / 2,5 |
| **Z**uzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

> Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak…

> Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: ............

Tentsioz beteriko barealdia bizi zuten herrian. Frantziako soldaduek alde egin zutenetik, elizan egiten zituzten ospakizunak berriro saratarrek, eta herriko etxean biltzen ziren biltzarreko ordezkariak. Frantziatik heltzen ziren berriak izaten zituzten mintzagai gehienetan, herria espainiarrek militarki okupatua izan arren, etengabeko informazioa iristen zitzaielako Ustaritzeko Kontseilu Nagusitik. Herriaren izena aldatzea izan zen Frantziako Gobernu Jakobinoak hartu zuen erabakietako bat. Ordutik aurrera Palomieres agertu behar zuen derrigorrez agiri ofizialetan, Sararen tokian. «Nolako pitokeria, Palomieres!» zioten saratarrek haien artean, bromatan, frantsesek ezarri zieten izena mespretxatuz. Ezkontzak, bataioak eta gainerako ospakizun ofizialak frantsesez egin behar zituzten derrigorrez, Sarako biztanle gehienek frantsesa jakin ez arren.

| IL AZALPEN PROBA • *Katearen begiak* |
| --- |
| Kodea* ............... Taldea ............... |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko |

| | | |
| --- | --- | --- |
| **E**dukia | | / 2,5 |
| **M**oldea | | / 2,5 |
| **Z**uzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

> Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak…

> Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.

1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: …………

Ezkertiarrak beldur ziren, garai hartan eskuindarrek bultzatu nahi zuten Nafarroako estatutua indarrean jarriz gero lurralde hura guztiz isolaturik utziko ote zuten: irla atzerakoi bat, gotorleku kontserbadore bat, eskuindarrek guztiz kontrolatua. Horregatik, Nafarroako ezkertiarrei une hartan lau probintzietako estatutua interesatzen zitzaien, eta haren aldeko jarrera zuten, urte batzuk lehenago ez bezala.

Izan ere, Nafarroan unean uneko interes politikoen arabera jokatu zuten eskuindarrek zein ezkertiarrek estatutuaren gaiarekin. Fronte bakoitzaren interesak hala eskatzen bazuen, estatutuaren aldeko iritzia zuten une batean, baina interesak aldatu ahala, iritzia ere aldatu egiten zuten.

Baina estatutuaren gaia urruti ikusten zuen ordurako Fortunato Agirrek. Ez baitzuen burutik kentzen goizean Pantaleonek egindako bisita, eta lagunak esandakoa.

……………………………………………………………………………………………

Tentsioz beteriko barealdia bizi zuten herrian. Frantziako soldaduek alde egin zutenetik, elizan egiten zituzten ospakizunak berriro saratarrek, eta herriko etxean biltzen ziren biltzarreko ordezkariak. Frantziatik heltzen ziren berriak izaten zituzten mintzagai gehienetan, herria espainiarrek militarki okupatua izan arren, etengabeko informazioa iristen zitzaielako Ustaritzeko Kontseilu Nagusitik. Herriaren izena aldatzea izan zen Frantziako Gobernu Jakobinoak hartu zuen erabakietako bat. Ordutik aurrera Palomieres agertu behar zuen derrigorrez agiri ofizialetan, Sararen tokian. «Nolako pitokeria, Palomieres!» zioten saratarrek haien artean, bromatan, frantsesek ezarri zieten izena mespretxatuz. Ezkontzak, bataioak eta gainerako ospakizun ofizialak frantsesez egin behar zituzten derrigorrez, Sarako biztanle gehienek frantsesa jakin ez arren. etxe bat, beste herrialde bat, beste ofizio bat eta bestelako bizimodu bat izateko aukera.